



Idazmena

Egoera

Eusko Ikaskuntzaren aldizkari elektronikoa da *Euskonews*, euskal zientzia eta kulturaren inguruan argitaratzen dena. Bertan plazaratzen diren gaiak askotarikoak dira, eta era horretara leiho bat zabaltzen du mundu osora.

Lan handia hartu duzu laugarren mailan zeure proiektua gauzatzen. Gustura aritu zara, eta irakurri dutenek ere interesgarritzat jo dute. Hori dela eta, aukera ezin hobea iruditu zaizu *Euskonews*en zeure lanaren nondik norakoak azaltzen dituen artikulua bat kaleratzea. Zeure jakintza-esparruari egin diozun ekarpena kaleratzeko bide bikaina iruditu zaizu.

Egitekoa

Idatzi *Euskonews* aldizkari elektronikoan zeure gaiari buruzko **artikulua**, xede izanik gai horrekiko **interesa piztea eta informazio esanguratsua ematea**.

Gutxieneko luzera: **350 hitz**

Proposaturiko denbora: **bi ordu eta hogeita minutu**.

4. mailarako helburuak kontuan hartuta, idazlana zuzentzeko irizpideak:

Egokitasuna

Eskatutako gai, solaskide eta xedearen araberako lotura. Solaskideen harreman-motari eta xedeari dagokion tonua. Lexikoaren modalizazioa.

Koherentzia

Idea nagusien eta lagungarrien hari logikoa. Diskurtsoaren egitura, garapena eta hurrenkera logikoa. Ideien osotasuna.

Kohesioa

Esaldi, paragrafo eta testu osoa elkarlotzeko testu-antolatzaileen erabilera eraginkorra. Puntuazio-sistema. Kohesio-mekanismoen erabilera: anaforak, ordezkapenak, elipsiak.

Aberastasuna

Hizkuntz baliabideen ugartasuna eta barietatea. Esaldi landuen eta horien baliokideen erabilera. Ordezkapen lexikalen erabilera.

Zuzentasuna

Gramatika-arauak: ortografia, deklinabidea, aditza, morfologia, sintaxia...
Gaiari loturiko lexikoa.